



18.BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida
Alarma Egoeraren 18. eguna. 2020ko apirilaren 2a, osteguna.

Asteazkenak, hilak 1eko Kudeaketa / Ekintzak

BALIABIDE INSTITUZIONALAK

Erosotasuna aurkitzen. Bi aste eta erdi beharrezkoak izan diren arren, Donostiako instituzioek Alarma Egoera honetan kalean ez gelditzeko pertsonentzako baliabideak sendotu eta egonkortu dituztela dirudi, Udaletxeak bereziki. Oraindik guztiz asetu ez diren behar jakin batzuek egoeraren konplexutasunean dute azalpena, eta SMUS-ekin dugun harremanak egonkorra izaten jarraitzen duelarik, kasu hauek kudeatzeko aukera dago.

Ongizatearen igoera. Jakin badakigu oso egoera zailak daudela, perfil anitzekin lan egin behar baita eta itxialdiak kalean bizitzera ohituta dauden pertsonengan duen esanahia eta eragina oso handia delako. Hala eta guztiz ere, askoz gehiago dira egoera honetan **lasaitasuna eta ongizatea sentitzen duten pertsonak**, epe motz batera garrantzitsua izan litekeen gertaera bati lekua utziz.

Arazoaren neurria. Egoera hau bukatzen denean eta instituzioek aurrera eramango dituzten neurrien antolakuntzan, aipagarria iruditzen zaigu pertsona kopuru handi bat eraikin hutsetan edo antzekotan bizi dela kontuan izatea. Beharrezkoa izango den, eta argi eskatuko dugun, esku-hartze integralak egoera guzti hauek kontuan izan behar ditu.

Elikagaiak bi bideetatik. Gizarte zerbitzuak geroz eta arreta gehiago ematen ari dira elikagaien beharrei dagokionez ere, modu honetan Harrera Sareak asetzen dituen beharrak murriztuz. Egoera hau a proposena ez izan arren, gure abiapuntua kontuan izanik aurreratu egin dela uste dugu eta kanpoan geldituko ziren pertsona asko aintzat hartu direla. Eskaera berriak sortzen diren heinean, hauek asetzeko jarrera eta baliabideak egotea espero dugu.

KOMUNIKABIDEAK. Naiz Irratian elkarrizketa. Komunikabideetara eta Sareetara 17. Buletina zabaldu da.

BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

Ekarpen ekonomikoari dagokionez, **139 pertsonak** egindako diru-sarrerekin **9.072€**ko kopurua jasotzera iritsi gara. Diru-sarreretako bat **Medicus Mundi** elkartetik dator, beste ekintza batzuetan ere Sarearekin elkarlanean aritzeko prest dagoelarik.

Eguneroko elikagai ekarpenetan, **Gandarias** eta **Pandora** tabernataz gain, **Cívico 14, El Fogón** eta **Uliako Aterpetxea** batu dira.



18.BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

7. PILULA

PAPERAK

*Solo voy con mi pena, sola va mi condena
correr es mi destino, para burlar la ley
perdido en el corazón, de la grande Babilón
me dicen el clandestino, por no llevar papel
A una ciudad del norte yo me fui a trabajar
mi vida la dejé entre Ceuta y Gibraltar
soy una raya en el mar, fantasma en la ciudad
mi vida va prohibida, dice la autoridad*

Manu Chao dixit. Hainbestetan abestu duguna ezin da hobeto azaldu.

Paperak! Poliziak hainbestetan eskatzen dizkienak, eta beraiei **Atzerritar Legeak** ukatzen dizkienak. Ezkerrekoa omen den arren, Espainiako Gobernuak ez du komentario bakar bat bera ere egin egoera ezegonkorrean dauden pertsonen harira. Kanean dauden pertsonen kopurua kudeatzeko errazagoa izanik, isiltasuna da orain nagusi erabaki politikoetan (iraganean hemen talde politiko guztiek egiten zituztenean erregularizazioak).

Portugal beti izango dugu bertan. Bere garaian Klabelinen Iraultzak eman zituen esperantzen tankera, azken bi urteetan ere Portugalek hiru erregularizazio partzial eramán ditu aurrera: 2018ko uztailean 30.000, 2019ko urtarrilean 45.000, eta azken egunetan tramiteak aurkeztuta zituzten pertsoneri. Bizilagun dugun herrialdea norabidean aurrera doan bitartean, noiz iritsiko gara gu?

Subiranotasunaren bidean. Gure Legebiltzarra Gobernu zentralarekin eztabaidan dabilen bitartean, aurrerapauso garrantzitsu bat izango litzateke **lan egiteko baimena** hemen dauden eta lan eskaintza bat duten pertsoneri ematea.

Paperekin etor daitezela! Seguruenik, hau pentsatzen dutenek ez dute jakingo migratzaileen nahia horixe bera dela. Espainiako Gobernuak migratzen duten gehiengoei ateak ixten dizkie, eta ondoan dugun **kontinente afrikarreko herrialde guztiei eskatzen dizkie bisak**. Dokumentu hauek, gainera, noizean behin bakarrik ematen dira eta ahalmen ekonomiko handia dutenei. Ondorioz, paperekin etortzeko eskaera guztiz zuzena da, baina ez migratzen duten pertsoneri zuzenduta, bidean beraien bizitza jokoan jartzen dutelarik, baizik eta paperak banatzen dituen Gobernuari.

Paperak guztientzako, orain.

Donostiako Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com 675 71 53 15

Facebook: @HiritarronHarreraSarea

Ekarpenak: cc ES44 2095 5013 70 9119577666

ZABAL EZAZU, helarazi zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.